



ARTE-HEZKUNTZA: MUSIKA

2020-2021 IKASTURTERAKO ORIENTABIDEAK

Dokumentu honen bidez, Arte-Hezkuntzaren Musika ikasgaiaren normaltasun berria orientatzeko zenbait gomendio proposatzen dira erabilgarriak izan daitezkeen 2020-2021 ikasturteko musika saioak antolatzeko orduan.

Orientabide hauek oinarritu dira egun indarrean dagoen EAEko ikastetxeetarako ikasturtearen hasierarako jarduketa-protokoloan, beraz, aldaketak aurrerantzean argitaratzen diren protokoloetara egokitu beharko lirateke.

Ikasturte hasierako protokoloek eta planek zehazten duten bezala, ikasleriaren alderdi emozionala izango da hausnarketa eta erabakiak hartzeko oinarritzko printzipio bat. Jakina da, musikak emozioak katalizatzen dituela, beraz, musika tresna zoragarria izan daiteke ikasleen lan hau bideratzen laguntzeko. Izan ere, pandemian musika ezinbesteko ihesbidea bihurtu da konfinamendua gainditzeko.

Ikasgelara buelta egiten dugun une honetan, garrantzitsua da gogoeta egitea musikak konfinamenduan izan duen rolari buruz: musika, arte plastikoa eta kirola bezalako diziplinak gai izan dira konfinamenduak ekarri dizkigun oztopo emozionalak gainditzeko; horrela, musikaren ikasgaiari duen eta merezi duen garrantzia ematea ezinbestekoa izango da.

Musikak ez du pandemia sendatzen, baina arima alaitzen du



1- AURRE-EBALUAZIOA EGITEA ETA IKASTURTEKO PROGRAMAZIOA ANTOLATZEA:

Ikasturtearen hasieran, musikako irakasleak talde bakoitzaren hasierako ebaluazioa egin beharko luke, ebaluazio horren ostean programazioa talde/gelaren egoerara egokitu ahal izateko, beraz, emaitza horiek izango dira behar duten ikasleen jardun-planak planifikatzeko eta programazioa diseinatzeko abiapuntua.

Era berean, aniztasunaren erantzun egokia bermatzeko, ezin ditugu alde batera utzi konfinamenduan gure ikasle batzuek izan duten eta eskolatik esku hartzea eskatzen duten egoera sozial eta familiar zaugarriak, inportantea izango da beraz, egoera honetan hobetu beharreko alderdiak identifikatzea.

Aurrerago azalduko den bezala, 2. edota 3. agertokietara jo behar izango balitz ere, eta ikasturtean hezkuntza-jarduera aurrez-aurrekoa edota online bidezkoa konbinatu behar izango balira ere, interesgarria izango litzateke musikako irakasleak ikastalde bakoitzeko tutorearekin elkarlanean, etxean dituzten baliabide teknologikoen ikuspegitik ikasle bakoitzaren egoeraren berri izatea (gailuak eta konektibitatea).

Ikasturte honetan bereziki, musika arloan ere, garrantzitsua da urte honen hasieran familiarekin modu koordinatuan jardutea: hasierako ebaluazioaren ondorioak, helburuak, materialak...elkarrekin partekatzeke, ikuspegiak kontrastatzeko eta etxetik eman dezaketen laguntzan orientatzeko.

2-AGERTOKI EZBERDINEN KUDEAKETARAKO PROPOSAMENA:

Zentroak ezarri duen planean oinarrituz, aurreikuspen batzuk kontuan hartuko dira posibleak diren hiru agertokietarako: 1) aurrez aurreko irakaskuntza, 2) aurrez aurreko eta telematikoa txandakatzen duena eta 3) on-lineko irakaskuntza.

- **1) aurrez aurreko irakaskuntza.** Ikasturteko lehenengo saioetan ikasleekin osasun eta higiene neurrien garrantzia eta derrigortasuna azaldu beharko da. Guztion osasunerako ikasleak birusaren aurrean duten gizarte-erantzukizunaz kontzientziatzeko, gure musika saioetan bereziki, higiene neurrien azalpen zehatza eman beharko da eta behar izanez gero saio bakoitzean errepikatuko dira.



Ikasturte hasieran kontuan hartuko dira konfinamendu garaian programaziotik landu diren gaiak eta jarduera multzoak, eta, bestetik, ezin izan direnak gauzatu.

Beraz, gomendagarria da jorratu ez diren funtsezko alderdietako jarduerekin hastea ikasturte hasieran (Curriculumaren funtsezko alderdiak LHRako eta DBHrako: <http://heziberri.berritzegunenagusia.eus/covid-19-2/>)

- **2) aurrez aurreko eta telematikoa txandakatzen duena.** Ikastetxea edo ikasgelaren bat egoera honetan izatea suertatuko balitz, taldeko jarduerak lehenetsiko dira ikasgela fisikoan burutzeko, adibidez:

- Taldeko interpretazio instrumentalak
- Taldeko ahozko interpretazioak: talde-kantuak, kanonak, ahots ezberdinetako interpretazioak...
- Talde-mugimenduak: dantzak, koreografiak..
- Taldean burutzeko ariketa musikal kolaboratiboak
- Entzumen aktiboak: musikogramak...
- ...

Bestetik, saioak online landu behar direnean (kontuan hartuta ikasle bakoitzaren egoera) hurrengo ariketak esate baterako lehenetsiko ditugu:

- Bakarkako musika-lanen interpretazioak: ahozkoak zein instrumentalak.
- Musika-obren ikertzea, konposagileak, testuingurua aztertzea...
- Banakako konposizio txikiak...
- Erronka musikalei banaka aurre egitea, erritmoak, kantuak, ...

- **3) On-lineko irakaskuntza.** Lehenik eta behin eta gertatu aurretik, ikasle guztiekin landu beharko ditugu gailu digitalen bidez beharrezkoak izango diren baliabideak. Ondo zehaztuko da, online arituz gero, zein izango den gure musika-saioen funtzionatzeko era: ikaslearen adina eta gaitasunak baimentzen duten neurrian ikaslearen autonomia sustatuko da. Ezin badugu aurrez aurreko musika saiorik egin, prestatuta eta ikasleekin adostua izan beharko ditugu: zein ikastetxeko plataformaren bitartez aurrera eramango dituzun saioak (moodle, classroom, e-mail, meet, whatsapp, zoom...), nola kudeatuko diren jarduerak, zer-nola-noiz ebaluatuko dugun...

Osasun egoera dela eta, etxean berriro geratzekotan, aurreko esperientziatik ikasi behar dugu: ondo funtzionatu duten esparruak indartu eta utz egin dutenek ekidin. Hau guztia burutzeko, musikako irakasleek batik bat 2019-2020ko memorian izango dute informazioaren iturri.

3-JARDUERAK

Hauek dira egun bizi dugun egoeran edozein hezkuntza-jarduera antolatzeko ezinbesteko baldintzak:

Ezarritako
distantzia
bermatu

Eskuak sarri
garbitu

Maskarak
erabili

Espazioak
aireztatu

Erabiltzen den
materialaren
higienea zaindu

Higieneko
materiala eskura
izan: gel
hidroalkolikoa....

Musika saioetan ere protokoloak ezartzen dituen prebentzio pertsonalerako neurrien arabera hurrengoak hartuko ditugu kontuan:

- Egunero, higienerari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogorarazi adin bakoitzera egokituta.
- Ahal den neurrian, ikasleen arteko 1,5 metroko distantziari eusten zaiola ziurtatu.
- Maskara erabiltzea:
 - Musika irakasleek maskara erabili behar dute beti.
 - Ikasleek, Haur Hezkuntzan, 6 urtera arte, maskara ez da nahitaezkoa izango, nahiz eta, posible den kasuetan, adin horretatik behera ere



erabiltzea gomendatzen den. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ezarritako bizikidetza-talde egonkorretan, maskara soilik kendu ahal izango da aire zabaleko jardueretan, hauek ikasleen arteko kontakturik gabe egiten badira.

4. ESPAZIOAK

Ikastetxe bakoitzak 2020-2021 ikasturterako ezarritako planaren arabera kudeatuko dira musika-saioak, horregatik, beharrezko eraldaketak aurreikusiko dira materialari eta espazioari dagokionez.

2020-2021 ikasturtearen jarduketa-protokoloek jarraituz, bizikidetza-talde egonkor gehien ezartzen saiatzea zein espazio guztiei ahalik eta etekinik handiena ateratzea gomendatzen da. Beraz, posiblea izango da eskolako espazioen berrantolaketa baten ondorioz gure musikarako espazioetan egokitzapenak egin behar izatea. Jakinda behin behineko eta aldi baterako neurriak direla, ikasturte hasierako planari jarraituta ekin beharko diogu gure egitekoari.

Aurreko guztia kontuan hartuta, musika-jardunerako espazio ezberdinak erabili ahal izango ditugu ikastetxean: musika-gelan bertan, taldearen ikasgela propioan, beste espazio batzuetan...

- Ikastetxeko musika-gelan:
 - Ikasgelako sarrera/irteeretan sortzen diren ikasle pilaketak saihestu beharko dira.
 - Ikastalde bakoitzaren artean, musika-gelako atean txartel bat izatea gomendatzen da ikasgela desinfektatuta edo gabe dagoen adieraziko duena (ikasleak beraiek desinfektatu dezakete erabilitakoa).
 - Ahal den neurrian ikasle guztiak saio bakoitzean kokaleku berean egotea gomendatuko da.
 - Gelako espazio guztiak ahalik eta ondoen aprobetxatzeko erabiltzen ez diren altzariak kendu egingo dira.
 - Saioen artean edota bitartean ondo aireztatuta egongo da musika-gela.



- Musika-saioak aurrera eramateko ikastetxeko planean erabakita dagoen lekua edozein izanda ere, espazio horretarako zehaztuta dauden arauak bete beharko dira.
- Jarduketa-protokoloak, kanpoko espazioak osasuntsuagotzat eta higienekoagotzat jotzen ditu, beraz, eremu hauek hobetsi egingo dira baita musika saioetarako ere.

5.MATERIALA:

Ez dugu ahaztu behar garrantzitsuena dela ziurtasun-distantzia mantentzea, higiene neurriak areagotzea, espazioak aireztatzea eta erabiltzen den materialaren higiena bermatzea. Arestiko guztia kontuan hartuta, materialaren kasuan sailkapena egin beharko da (zein erabili eta nola garbitu eta zein ez erabili gordeta izateko).

- Materiala eskuekin manipulatu ostean erabilitako guztia desinfektatu egin behar da. Musika-gelan edo ikasgelan eskura izan beharko dugu higiene materiala: desinfektatzailea, gelak, papera, zakarrontzi pedalduna...
- Musika-saioak ikasgeletan burutzen direnean, eta posiblea den heinean, talde bakoitzerako *Oinarrizko Musika Kit*-a izatea proposatzen da, materiala esku- ezberdinetatik pasatzea saihesteko. *Musika Kit*-ean garbiketa erraza duten tresnak lehenetsiko dira, perkusio indeterminatua duten tresnak esaterako: kriskitinak, triangeluak, txindatak...
- posiblea den neurrian ikasleek bere material propioa izatea hobetsiko da. Egoeraren arabera bakoitzaren materiala erabiliko da (etxean dituzten musika-tresnak esaterako).
- Abagunea aprobetxatuz ikasle bakoitzak bere *Musika Kit Pertsonala* egin/sortu dezake (material birziklatuak lehenetsiko dira): lastotxoak txirulak, boladun tanborrak, edalontzidun xilofonoak, tutu elektrikoarekin egindako tronpetak, euri-makila, ukelelea.... aukera paregabea da disziplina arteko konpetentziak garatzeko.
- Ez dugu ahaztu behar, gure gorputza *Oinarrizko Musika Kit pertsonal* jatorrena dela, ekin diezaiogun gorputz perkusioari (Body Perkusion-ak aukera asko eskaintzen ditu).



- Praktika instrumentalari dagokionez, garbiketa erraza duten eta melodiak sor ditzaketen musika tresnak hobetsiko dira: teklatuak, xilofono, metalofonoak, karilloiak, boomwhackers-ak, kanpaiak...
Haizezko musika-tresnak (txirula, poxpolina...) kanpoko espazioetan soilik eta segurtasun neurria mantenduz erabiltzea gomendatzen da.
- Musika-gelan, badira ordea, momentuan desinfektatu ezin diren baliabide edo musika-tresnak, esate baterako: membranofonoen familiakoak, panpinak, oihalak.. erabili ezkerro desinfekzio protokoloa bermatu beharko da.

6. FAMILIEKIKO HARREMANAK ETA IRAKASLE-TUTOREAREKIN KOORDINAZIOA

Arestian aipatu bezala, familiekin harremanak eta komunikazioa ikasleen ongizatea bermatzeko ezinbestekoa da, pandemian baita aurretik ere. Motibazioa eta egoera emozional ona ziurtatzea gure eginkizunetariko bat da.

Musikako irakasleak erregistro bat izatea gomendatzen da, familiekin izandako harremanen historikoa jasotzeko (noiz, norekin, zer, hartutako erabakiak, familiarekin hartutako konpromisoak...).

Zailtasunak dituzten ikasleen kasuan familiekiko harremana areagotu egin behar da, euren parte hartzea eta laguntza ere, ahal den neurrian, bermatzeko.

Irakasle tutorearekin koordinazioa berez inportantea bada, ezinbestekoa egingo zaigu bizi dugun egoera berezi honetan. Koordinazioak sistematizatu behar dira momentu oro informatuta egoteko: norekin ezin den kontaktatu, ze ikaslek azaltzen dituzten zailtasun handienak, ze familiak behar duten laguntza berezia...

Animo eta musika on!